

## **NORMAS DE USO DE LA PISTA DE ATLETISMO DE ESTELLA-LIZARRA**

El uso de la pista de atletismo se regulará por la presente normativa, que se complementará con lo establecido en el Reglamento de Uso de las Instalaciones Deportivas de la Concejalía de Deportes del Ayuntamiento de Estella-Lizarrar.

### **Entrada y normas generales**

1. Todas las personas y entidades interesadas deben realizar la reserva de la entrada a la pista a través del área de Deportes del Ayuntamiento de Estella-Lizarrar, ya sea de forma presencial o por correo electrónico.
2. La reserva de la instalación es personal e intransferible; su incumplimiento podría conllevar una sanción.
3. Es obligatorio que todas las personas y entidades usuarias de la instalación sigan las indicaciones del personal presente en las mismas.
4. Está prohibido fumar (en toda la instalación) y/ o comer en la pista de atletismo y campo de césped interior, abandonar desperdicios o basuras en el recinto e introducir recipientes de vidrio o material cortante.
5. No se permite el acceso de mascotas (excepto perros guía), bicicletas, patines, skates y juegos con balones o pelotas. Así como objetos no autorizados por la Concejalía de Deportes del Ayuntamiento.

### **Material y equipamiento**

6. Todo deportista que utilice la pista deberá ir con calzado y ropa deportiva apropiados para el uso de la misma.
7. Si se utilizan zapatillas de clavos, estos no pueden exceder de 6 mm de largo.
8. Cualquier mal uso de la instalación o del material de la misma o cualquier acción que perjudique a quienes están utilizando las pistas, podrá conllevar la expulsión de la instalación temporal o definitivamente.
9. Solo los grupos y personas autorizadas podrán utilizar el material y equipamiento de la instalación, debiendo identificarse ante la persona responsable si se les solicita.

10. Cualquier material o ejercicio que se utilice y que pueda causar daños en el material sintético de la instalación podrá ser prohibido. Asimismo, se prohibirá el uso de material que no sea propio de la instalación si se considera que puede deteriorar las pistas.
11. Una vez finalizada la actividad, el material deberá ser devuelto en el mismo estado en que se ha cedido, asegurándose de que no presente daños ni deterioros, y entregado a quien esté a cargo de la instalación.
12. Quienes utilicen los fosos de longitud están obligados a barrer y recoger la arena que, por su uso, ensucie la pista, así como a cubrir el foso una vez finalizadas las actividades.
13. La utilización de la colchoneta de altura y pértiga sólo podrá hacerse previa solicitud al personal de la instalación y por medio del Club de Atletismo Iranzu. Es obligatorio su acondicionamiento posterior tras su utilización. El incumplimiento de esta norma puede conllevar la NO autorización para usos posteriores.
14. Los pasillos de longitud y salto de altura, así como el círculo de lanzamientos, están reservados para realizar las pruebas para las que han sido diseñados.
15. Si en algún caso alguna persona realiza series a un ritmo menor que otra que viene por detrás, deberá ceder la calle a ésta última siempre que lo solicite. Es imperativo que al cruzar la pista, se mire si alguien está haciendo series o va a comenzar a hacerlas.
16. La dirección de carrera en la pista será obligatoriamente dejando la cuerda a la izquierda. Se debe comprobar antes de entrar que no se molesta a quien esté corriendo en ese momento.

#### Aceptación de la normativa

17. El Ayuntamiento de Estella-Lizarra no asume responsabilidad por la pérdida de objetos en la instalación. Por ello, se recomienda no traer pertenencias de valor.
18. La Concejalía de Deportes se reserva el derecho de modificar días, horarios, etc., si fuera preciso y en función de nuevas actividades, así como de suspender las actividades por la celebración de otras de carácter puntual o por decisión de la dirección.
19. El uso de la instalación supone la aceptación de esta normativa de uso. Cualquier persona que no cumpla esta normativa podrá ser requerida a que abandone la misma.

## **ESTELLA-LIZARRAKO ATLETISMO PISTA ERABILTZEKO ARAUAK**

Atletismo pistaren erabilera araudi honen bidez arautuko da, eta Estella-Lizarrako Udalaren Kirol Zinegotzigoaren kirol instalazioak erabiltzeko erregelamenduan ezarritakoarekin osatuko da.

### **Sarrera eta arau orokorrak**

1. Interesa duten pertsona eta entitate guztiek Estella-Lizarrako Udalaren Kirol Arloaren bidez egin behar dute pistarako sarreraren erreserba, bertara joanda edo posta elektronikoz.
2. Instalazioaren erreserba pertsonala eta besterenezina da; ez betetzeak zigorra ekar dezake.
3. Nahitaezkoa da instalazioaren erabiltzaile eta entitate guztiek bertan dauden langileen jarraibideak betetzea.
4. Debekatuta dago erretzea (instalazio osoan) eta/edo jatea atletismo-pistan eta barruko soropilean, esparruan zaborrak edo hondakinak uztea eta beirazko edo material zorrotzeko ontziak sartzea.
5. Ezin dira sartu maskotak (itsu-txakurrak izan ezik), bizikletak, patinak, skateak eta baloiekin edo pilotekin egindako jokoak. Baita Udaleko Kirol Zinegotzigoak baimendu gabeko objektuak ere.

### **Materiala eta ekipamendua**

6. Pista erabiltzen duen kirolari orok pistan aritzeko egokiak diren oinetakoak eta kirol arropa eraman beharko ditu.
7. Iltzedun zapatilak erabiliz gero, hauek ezin dute 6 mm baino luzeagoak izan.
8. Instalazioa edo haren materiala behar bezala ez erabiltzeak edo pistak erabiltzen ari direnei kalte egiten dien edozein ekintzak instalazioa aldi baterako edo behin betiko kanporatzea ekar dezake.
9. Talde eta pertsona baimenduek bakarrik erabili ahal izanen dituzte instalazioko materiala eta ekipamendua, eta arduradunaren aurrean identifikatu beharko dute, horrela eskatzen bazaie.

10. Erabiltzen den edozein material edo ariketa debekatu ahal izanen da, baldin eta instalazioko material sintetikoan kalteak eragin baditzake. Era berean, debekatuta egonen da instalazioarena ez den materiala erabiltzea, pistak honda ditzaketela uste bada.
11. Jarduera amaitu ondoren, materiala laga den egoera berean itzuli beharko da, kalterik edo narriadurarik ez duela ziurtatuz, eta instalazioaren ardura duen pertsonari eman beharko zaio.
12. Luzera-jauziko hobiak erabiltzen dituztenak behartuta daude pista zikintzen duen hondarra erratzatu eta jasotzera, baita jarduerak amaitu ondoren hobia estaltzera ere.
13. Alturako eta pertikako koltxoneta instalazioko langileei alde aurretik eskatuta eta Iranzu Atletismo Klubaren bidez baino ezin izanen da erabili. Erabili ondoren, nahitaez egokitu behar dira. Arau hau ez betetzeak hurrengo erabileretarako BAIMENIK EZ EMATEA ekar dezake.
14. Luzera eta altuera jauziko korridoreak, baita jaurtiketen zirkulua ere, diseinatu diren probak egiteko erreserbatuta daude.
15. Inoiz norbaitek serieak atzetik datorren beste batek baino erritmo motelagoan egiten baditu, azken horri utzi beharko dio kalea, hala eskatzen duen bakoitzean. Pista zeharkatzean, inor serieak egiten ari den edo egiten hasiko den begiratu behar da.
16. Pistako lasterketaren norabidea derrigorrez izango da soka ezkerrean utziz. Sartu aurretik, une horretan korrika ari denari ez zaiola enbarazurik egiten egiaztatu behar da.

#### Araudia onartzea

17. Estella-Lizarrako Udalak ez du bere gain hartzen instalazioan objektuak galtzeagatik erantzukizunik. Horregatik, baliozko gauzarik ez ekartzea gomendatzen da.
18. Kirol Zinegotzigoak eskubidea du egunak, ordutegiak eta abar aldatzeko, behar izanez gero eta jarduera berrien arabera, bai eta jarduerak bertan behera uzteko ere, unean-uneko jarduerak egiteagatik edo zuzendaritzak hala erabakita.
19. Instalazioa erabiltzeak erabilera-araudi hau onartzea dakar. Araudi hori betetzen ez duen edonori eskatu ahal izanen zaio bertan behera uzteko.